

Mikel Gorrotxategi Nieto, Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkaria denak, ondoko

DIKTAMEN HAU ematen du:

Elkargo akademiko honek prestaturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen izendegian*, bere 583 zenbakia daraman izena, eta orain arte Administrazioaren erabilera ofizialean *Ubidea* deitua, euskal aldaera ofizialean *Ubide* dela.

Batzorde honek argi ikusten du, beste kasu batzuetan bezala, azkeneko -a artikulua baino ez zela izango eta euskaldunen artean *Ubide* erabiltzen dela, *Ubiden*, *Ubidetik*, *Ubidera eta ez Ubidean*, *Ubideatik*, *Ubidearra* esanez.

Ondorioz, hil honetako hamabostean eginiko bilkuran berresten du udal honen euskal izena *Ubide* dela.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko izenpetzen dut, Bilbon mila bederatziehun eta laurogeita hamalagarreneko apirilaren hogeita zazpian.

* * *

On ikusia
E. Knörr,
batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto,
Onomastika batzordeidazkaria